



2009an gizarte zerbitzuen arloan egitasmoak burutzeko diru-laguntza oinarriak

Usurbilgo Udaleko Tokiko Gobernu Batzarrak, 2009ko urtarrilaren 27ko bilkuran *2009an gizarte zerbitzuen arloan egitasmoak burutzeko diru-laguntza oinarriak* onartu zituen aho batez. Eskariak, diru-laguntza deialdi hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hogei eguneko epean aurkeztu beharko dira, biharamunetik kontatzen hasita.

Usurbil, 2009ko urtarrilaren 28a.- Xabier Mikel Errekondo Saltsamendi, alkatea.

2009. URTEAN GIZARTE ZERBITZUEN ARLOAN EGITASMOAK BURUTZEKO DIRULAGUNTZA OINARRIAK

Gizarte Zerbitzuen arloan lanean diharduten irabazi asmorik gabeko norbanako, erakunde eta elkarteei diru-laguntzak emateko oinarriak, 2009. urtean zehar ekintzak egiteagatik.

Elkarteeak, bestelako erakundeak eta norbanakoek udalerrian gizarte zerbitzuen arloan egiten dituzten ekimenak bultzatu eta sustatzeko asmoz, dirulaguntza deialdia arautuko duten oinarriak atera ditu Usurbilgo Udalak 2009. urtean zehar egingo diren jarduerak diruz laguntzeko.

1. artikulua.- xedea

Ebazpen honen xedea da Usurbilgo Udalaren diru-laguntzen oinarri erregulatuak ezartzea, norgehiagoka erregimenean, 2009. urtean gizarte zerbitzu arloan egitasmoak burutuko dituzten erakunde publiko nahiz pribatuei eta pertsonari. Eta hori guztia, Usurbilgo Udalaren diru-laguntzak eta bestelako laguntzak arautzen dituen Ordenantzaren III kapituluaren I. Atalak ezartzen duenari jarraiki.

Diruz lagunduko dena da gizarte zerbitzuen arloan ekimenak garatzea, baldin eta Usurbilgo Udalak edo bere erakunde autonomoak egiten dituzten ekimenen osagarri badira edo ordezkatzeko badituzte edo erabilera publikoko edo gizarte intereseko jarduerak badira eta, beti ere, deialdi honetan ezartzen diren baldintzak kontuan izanda.

Ez dira aintzat hartuko beste udal partida edo deialdietatik diru-laguntza jasotzen duten ekintzak. Ezingo dute dirulaguntzarik jaso deialdi honen bidez bere izaera eta helburuak direla eta udalaren beste arlo edo erakunde autonomo batzuen beste programa baten edo batzuen bidez bideratu behar zirenak. Dena den, dagokion erakunde edo udal arloetara bideratuko da eskaera, eta horren berri emango zaio interesatuari.

2. artikulua.-Onuradunak

Diru-laguntza hauen subjektu onuradunak honako hauek izan daitezke: Usurbilen gizarte zerbitzuen arloan ekimenak egiten dituzten pertsona juridiko zein fisikoak eta erakunde publikoak zein pribatuak, betiere, laguntza horien bidez erabilera publikoko edo gizarte intereseko ihardueraren bat gauzatzeko asmoa badute edota helburu publikoren bat lortzeko lanean badihardute, eta elkartearen egoitza Gipuzkoa lurralde historikoan egonik, zerbitzu



hauen onuradunak usurbildarrak baldin badira. Usurbilgo udalerrian beren egoitza duten elkarteek diru-laguntzak lortu nahi badituzte, Elkarteen Udal-erregistroan inskribatuta egon behar dute.

Halaber, Usurbilgoak ez diren entitateek ere, eskatu dezakete diru-laguntza, baldin eta gizarte zerbitzuen arloan Usurbilen ekimenen bat burutzen badute eta izena emanda badaude dagokien Elkarte Erregistroan eta Udalerrirako interesgarriak direla iritzitako gizarte zerbitzuen arloko iharduerak baldin badira.

Salbuespenez, eta Udal Ordenantzaren 5. artikuluko 4. atalak eta 6. artikuluko 7. atalak zehazten duten diru-laguntza eskabideak 3000 eurotik beherakoak izanez gero, onuradun izaera izan dezakete pertsona fisiko edo juridikoen taldeek, publikoak edo pribatuak, ondasun erkidegoek edo unitate ekonomikoa edo ondare berezia den beste edozein mota, nahiz eta nortasun juridikorik ez izan, udal laguntza edo diru-laguntza lor dezaketen proiektuak edo iharduerak egin nahi dituztenean.

Merkatal enpresak deialdi honetatik kanpo geratuko dira nahiz eta euren jarduerak zerikusia izan gizarte zerbitzuen arloarekin.

Onuradunek beti ere, Dirulaguntzen 38/2003 Lege Orokorraren 14. artikulua ezartzen dituen betebeharrak guztiak bete beharko dituzte.

3. artikulua.-Eskariak aurkezteko lekua eta dokumentazioa

Eskariak Udaleko Erregistro Nagusian aurkeztu behar dira Udalak horretarako jarriko dituen eskari-orrietan. Halaber, azaroaren 26ko Herri Administrazioen Arau bide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legearen 38.4 artikulua aipatzen dituen lekuetan ere aurkeztu ahal dira.

Diru-laguntza eskaera egiteko, dokumentazio hau ekarri behar da Udalera:

- Diru-laguntza eskari normalizatua (I. Eranskina).
- Ekintzei buruzko fitxak (II. Eranskina)
- Eskatzailearen NANaren fotokopia.
- Identifikazio Fiskalaren Kodearen kopia (edo NANaren kopia, hala badagokio)
- Gizarte Segurantzarekiko betebeharretan egunera egotearen eta Ogasuneko betebeharrak betetzearen agiria. (III. Eranskina.)

Erakundeak ez du zorrik izango Usurbilgo Udalarekin, nahiz eta honi dagokionez, ez den egiaztagiririk aurkeztu behar.

Edozein kasutan, aurre ikusitako ekimenari dagokion dokumentazioaz gain, entitate eskatzaileei behar besteko informazio osagarria eskatu ahal zaie aurkeztutako ekimena behar bezala baloratu ahal izateko.



4. artikulua.-Epeak

Eskariak, diru-laguntza deialdi hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta 20 eguneko epean aurkeztu beharko dira, biharamunetik kontatzen hasita.

Aurkeztutako dokumentazioa osatu gabe badago edo oinarrietako baldintzaren bat betetzen ez badu, hamar laneguneko epea emango zaio interesdunari akatsak zuzendu ditzan edo dagokion dokumentazioa gehitu dezan. Eta jakinaraziko zaio, halaber, hala egiten ez badu, bere eskaria ez dela kontuan hartuko eta, hala ebatziko da Herri Administrazioen Arau bide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legearen 42. artikulua aurre ikusten dituen terminoen arabera.

5. artikulua.-Diru-laguntzaren zenbatekoa

Gastua 1.8000.481.313.90.03 aurrekontu-partidaren kargura joango da eta dirulaguntzaren zenbateko osoak ez du gaindituko partida horretan azaltzen den diru izendapena.

Araudi honetako diru-laguntzak bateragarriak izango dira dena delako erakunde publiko edo pribatuak xede bererako eman ditzaketen bestelako diru-laguntzekin. Edozein modutan, ez da gain finantzaketarik egongo, eta hala gertatuko balitz, diru-laguntza murriztu egingo litzateke. Gain finantzaketa gerora emango balitz, eta dirua itzultzeko beharizanen bat baino gehiago izanez gero, dena delako pertsona edo erakunde onuradunak dagokion parte proportzionala itzuli beharko du Usurbilgo Udalak egin dion ekarpena aintzat hartuta.

Erakunde edo elkarte bakoitzari zenbateko dirulaguntza emango zaion ezartzeko, honako hau kontutan hartuko da:

- .- Udalaren aurrekontuan xede horretarako aurrikusitako zenbatekoa
- .- Elkarte eskatzaileen kopurua

Bestalde, aurrekontuan zehaztutako gastua baino txikiagoa egiten bada, dirua itzuli egin beharko da. Dirua itzultzeko kasuetan, entitateak aurkeztutako aurrekontuaren gain emandako dirulaguntzen portzentaia hartuko da aintzakotzat.

6. artikulua.- Prozedura

Gizarte zerbitzuetako teknikariak eta Ongizate eta Osasun Batzordeburuak dirulaguntza eskariak ebaluatu ondoren, teknikariak txostena egin eta Ongizate Batzordera eramango du, batzorde horrek, aipatutako txostena kontuan hartuta, bere iritzia eman dezan. Ondoren, Dirulaguntzen Batzorde Orokorrek ebazpen proposamena egingo du. Jarraian, interesatuari jakinaraziko zaio eta hamar eguneko epea izango du alegazioak aurkezteko. Azkenik, Tokiko Gobernu Batzarrak emango du dirulaguntzei buruzko behin betiko ebazpena, gehienez ere, hiru hilabeteko epean eskaria aurkeztu izan den egunetik zenbatuta.

Aipatutako epea igaro ondoren ebazpena jaso ezean, ulertu behar da eskaria gaitzetsi egin dela, gerora egin daitekeen ebazpenaren kaltetan izan gabe.



7. artikulua.- Dirulaguntzaren Batzorde Orokorra

Dirulaguntzen Batzorde Orokorra modu honetara osatuko da:

- Udalean dirulaguntzak banatzen dituen batzorde bakoitzeko lehendakaria eta teknikaria
- Udal idazkaria
- Udal kontu-hartzailea

Dirulaguntza Batzorde Orokorren funtzioak, besteak beste, hauek izango dira:

- Udal dirulaguntzak banatzeko irizpideak bateratzea
- Dirulaguntzen legezotasuna bermatzea
- Dirulaguntza bikoizketak ekiditea

8. artikulua.-Baloratzeko irizpideak

Diru-laguntzak ematerakoan, egitasmoak hartuko dira kontuan, ondoko irizpideen arabera:

▪ Ekintzaren eragina eta eremua : 30 puntu

- *Zerbitzuak udalerrian bertan ematea: 10 puntu*
- *Gizarte-arloko zailtasunak dituzten herritarrei zuzentzea eta pertsona, familia edo beste maila batean hobetzen laguntzea: 10 puntu*
- *Onuradunen edo artatutako usurbildarren kopurua: 10 puntu*

▪ Elkartearen funtzioak eta berezitasuna : 40 puntu

- *Udalerriko elkarteak: 10 puntu*
- *Helburuak talde berezietan eragina izatea: 10 puntu*
- *Udaleko Gizarte zerbitzuekin izandako lankidetzak: 10 puntu*
- *Antzeko entitatek ez izatea: 10 puntu*

▪ Ekintza bera : 30 puntu

- Egitasmoaren kalitatea, diseinua, metodologia, izaera berritzailea, etab.: 10 puntu.
- Proposatuko en antzeko jarduerarik ez egotea: 10 puntu
- Elkartearen euskararen erabilera: 10 puntu

Nolanahi ere, aurreko irizpideetan baloratu ez diren bestelako herri intereseko irizpideak kontuan hartzeko aukera izango da.

Diru-laguntzak emateko, Elkartek bakoitzak, gutxienez 50 puntu lortu beharko ditu.

9. artikulua.-Diru-laguntza ordaintzea



Diru-laguntza eman dela jakinarazi bezain laster, diru-laguntzaren %50a ordainduko da, eta horretarako ez zaie inongo bermerik eskatuko onuradunei. Gainerako %50a, eman deneko diru-laguntza justifikatu ondoren ordainduko da. Eta kontuan izango dira, halaber, ordenantzaren 12. artikuluan aipatzen diren aspektu guztiak.

10. artikulua.-Betebeharrak

Deialdi honetako diru-laguntzak jaso dituzten entitate onuradunek, Usurbilgo Udalaren diru-laguntzak eta bestelako laguntzak arautzen dituen Ordenantzaren 6. artikulua ezartzen dituen betebeharrak bete beharko dituzte. Besteak beste, ondorengo hauek:

- a) Diru-laguntza emateko eskatzen den jarduera egitea edo eskatutako jokabide hori izatea.
- b) Jarduera egiten ari dela frogatzea. Orobat, laguntza emateko bete beharreko eskakizunak eta baldintzak betetzen dituela egiaztatzea.
- c) Diruz lagundutako jarduera betetzeko baimen guztiak eskuratzea, eta horietan ezarritakoa betetzea.
- d) Diru-laguntza eskaini duen Usurbilgo Udalak egin beharreko egiaztatze-jarduketei trabarik ez jartzea, ez eta Esku-hartzaitzari dagozkion finantza-kontrolako jarduketei, Herri Kontuen Euskal Epaitegiaren jarduketei edota eskumen hori duten bestelako organoen jarduketei ere.
- e) Beste administrazio edo erakunde batzuetatik –publiko nahiz pribatuetatik, estatuko nahiz nazioartekoetatik– helburu berbererako beste diru-laguntzarik jasotzen bada, diru-laguntza eskaini duen organoari horren berri ematea
- f) Diru-laguntza eskaintzeko garaian kontuan hartutako atalen batean aldaketarik gertatuz gero –objektiboa nahiz subjektiboa izan–, diru-laguntza eskaini duen organoa aldaketa horren jakinaren gainean jartzea.
- g) Indarrean dauden xedapenen arabera Gizarte Segurantzaren eta Ogasun Publikoaren aurrean dituzten -betebeharrak ezagutzea –Usurbilgo Udalak ezarritakoak barne. Horretarako, eskatzaileek idatzizko aitortzen adieraziko dute Gizarte Segurantzarekiko betebeharretan egunera dagoela edo Ogasun Arloko betebeharrak betetzen dituela.
- h) Diruz lagundutako jarduerari buruz, pertsona onuradunak euskara edo euskara eta gaztelania erabili beharko du argitaratutako iragarki, ohar, jakinarazpen eta abarretan.

Era berean, diruz lagundutako jarduerak Euskararen Udal Ordenantza, Usurbilgo Udalaren Euskararen Erabilera Plana, gainerako araudia eta Usurbilgo herriaren errealitate soziolinguistikoa aintzakotzat hartuko du.



Dirulaguntza-gai den ekintzako hizlaria euskalduna ez balitz, behintzat laguntzaile euskalduna izan beharko du, euskaldunen hizkuntza eskubideak ere errespetatu daitezkeen.

Gainera, diruz lagundutako jardueran diharduela egiaztatzerakoan, hizkuntza-betebehar hori betetzen duela frogatu beharko du onuradunak.

- i) Ekintzei lotutako publizitatean Usurbilgo Udalaren babesletza adierazi beharko da, udalaren logoa erantsiz.

11. artikulua.-Diru-laguntza justifikatzea

Diru-laguntza justifikatzeko, entitate edo pertsona onuradunak jarraian zehazten den dokumentazioa aurkeztu beharko du, 2010eko urtarrilaren 8a baino lehenago.

a) Egindako jardueraren memoria (IV. Eranskinaren arabera), ahalik eta zehatzena. Bertan, diru-sarrerak eta gastuak erantsiko dira.

b) Gastuaren egiaztigiri originalak edo fotokopia konpultsatuak. Egiaztigiri hauek, ezinbestez, diru-laguntza eman zeneko helburu eta ekintzei dagozkien gastuei buruzkoak beharko dira izan. Ez dira onartuko beste helburu batzuetarako egindako gastuen egiaztigiriak. Justifikazioa egiterako orduan kontuan hartuko da diru-laguntza ematerako orduan oinarritzat hartu zen gastuaren aurrekontua, eta benetako gastua. Proporzionaltasunaren araua aplikatuko da, beti ere emandako dirulaguntzaren mugaraino..

c) Justifikazioari honakoak erantsi beharko zaizkio: azterketa, programa, publikazio eta horma-irudi iragarleen bi ale. Halaber, jardueraren inguruan sorturiko edozein eratako dokumentazio grafiko zein idatzizko Usurbilgo Udala agertu beharko da jardueraren babesle moduan egingo den publizitate guztian.

Fakturetan hauxe agertuko da:

- Erakundearen edo/ta elkartearen identifikazioa.
- Hornitzailearen identifikazioa.
- Fakturaren data.
- Jarduera
- Zerbitzuaren deskripzioa.

Dirulaguntzaren bidez egiten den jarduera antolatzeagatik ez da diru-saririk jasoko.



Usurbilgo Udala



12. artikulua.-Dirua itzultzea

Deialdi honetako 10. artikulua b) paragrafoak ezartzen duena betez, diru-laguntza eman deneko jardueraren gastuaren aurrekontuari dagokion gastua justifikatzen ez bada, diru-laguntza osoa edo zati bat eta dagokion berandutze-interesa itzuli beharko da, halaxe ezartzen baitu Usurbilgo Udalaren diru-laguntzak arautzen dituen Ordenantzaren bereko 15.artikulauk eta, beti ere, Ordenantza bereko 16.artikuluak arautzen duen prozedura jarraituz.

13. artikulua.-Araudi osagarria

Deialdi honek ezartzen ez duenari dagokionez, aintzat hartuko da Usurbilgo Udalaren diru-laguntzak arautzen dituen Ordenantzak ezartzen duena. Eta Herri Administrazioetako Dirulaguntzak arautzen dituen 38/2003 Legearen xedapenak.